

Ezpalak

URKO APAOLAZA / JON TORNER

Arabako trikuharriak Kultur Ondare izendatuko dituzte

ARABAKO hainbat bailaratan dauden hamabost trikuharri esanguratsu Kultur Ondare izendatzeko espedientea martxan jarri du Eusko Jaurlaritzak. Trikuharrien egoera kaxkarra ikusita, babes handiagoa eskaintzeko erabakia da honakoa eta trikuharrietan edo inguruan inolako jarduerarik ezingo da egin behin Kultur Ondare izendatu eta gero. Besteak beste, Sorginetxe (Agurain, argazkian), La Hechicera (Elvillar) edo El Sotillo (Laguardia) trikuharri ezagunak babestuko dira; guztiek 6.000 eta 4.000 urte arteko multzo megalitiko homogenea osatzen dute.



TERRAE ANTIQUAE

Gipuzkoako museoak webgune batean bilduta

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK herrialde horretako museo eta interpretazio zentroyen inguruko webgunea zabaldu du: www.gipuzkoakomuseoak.net. Atari horrek museoaren inguruko informazioa eta herritarrek parte hartzeko tresnak jasotzen ditu. Modu berean, zentro guztien arteko koordinaziorako gune pribatu bat ere badu webguneak.

● Gorka Jakobe Palazio EHUKo irakasleak *Deian*:


«Interneten denak ez du doakoa izan behar, baina jakintzak bai. Aspaldi legoke minbizia gaingiduta medikuntza ezagutzak libreak izango balira. Zerbitzuei eman behar zaie garrantzia, ez *royalty* eta patenteei. Azken batean zeure izena agertuko da libre sortutako edozertan eta horrek beste maila bat emango dizu. Horrela ere lortzen dira irabaziak. (...) Komunikazio tresna bihurtu da internet: gero eta berriemaile gehiago daude, publizitatea ere sakabanatuago... hedabide eskergen aroa amaitu egin da. Benetako demokrazia sortzen ari da interneten, edonork sor dezakeelako bere komunikabidea, bloga, wikia...».

Bilboko Alondegiak atek zabaldu ditu, hamar urteko eraberritze lanen ostean. Philippe Stack frantziarrak diseinaturiko aisialdi eta kultur zentroa eraikitzeko 75 milioi euroko aurrekontua bideratu du Bilboko Udalak. Pasa den astean erakustaretoak eta auditoriuma inauguratu zituzten; hilaren 27an Ricardo Perez sukaldariaren jatetxea irekiko dute, 28an Golem kateko zinema aretoak, ekainaren 1ean igerilekuak eta gimnasioa, eta ekainaren 15ean liburutegia.

Txuspo Poyo artista nafarrak hiru dimentsioko animazioak, eskulturak eta marrazkiak harremanetan jarri ditu Gasteizko Artium museoan. Nazio Batuen Erakundearen Manhattango eraikina hartu du abiapuntutzat.

Nestor Basterretxea eskultore bermeotarra omendu dute Baionako Euskal Museoak, Bonnat museoko Carré aretoak eta Herriko Etxeak. Batetik, bi erakusketa izango dira ikusgai museotan abuztuaren 22ra arte. Bestetik, ekainaren 5ean Basterretxearen obraren inguruko egun osoko egitaraua (<http://agenda.bayonne.fr>) prestatu dute Baionako Herriko Etxeko areto nagusian, Eusko Ikaskuntzaren babesarekin.

Ane Piratak enkargu bat eman dio Patakoni: Pirritx, Porrotx, Marimotots eta tripulazioko gaintontzeko kideak marinela eta pirata bihurtu behar ditu lehenbailehen. Hori da Mitxel Muruak idatzi duen *Pirata ausartak* (Elkar) liburuaren abiapuntua. Ilustrazioak Julen Tokerokek egin ditu.



● Javi Nevado Bilboko ANTI- liburudendako bazkideak *Nontzeberri* webgunean :

«Esan ohi den bezala, guk beste liga batean jokatzeko dugu. Gure eguneroko arazoak ez datoz merkatal gune handi horiekin publikoak lortzeko lehiatik. ANTI- dendara datorren jendeak badaki zerbait ezberdina garelako. Uste dugu gure publikoak badakiela zertan datorren, merkatal gune handietan aurkitzen ez denaren bila, hain zuzen ere: espezializazioa, tratua pertsonalizatua, giro erlaxatuagoa, programazio alternatiboko eskaintza eta egiazkotasuna. (...) Zenbat eta gehiago espezializatu, orduan eta gehiago saltzen dugu». [Interneten: www.anti-web.com].



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php